



Zientziaren Ertzetik

Hitzaldi-solasaldia

Itsasoko DNA irakurtzen: ozeanoen ekologia eta eboluzioa ulertzeko bidaia

Naiara Rodriguez-Ezpeleta AZTIko ikertzailea

Durangoan, 2024ko urtarrilak 30. Lur planetarentzat ezinbesteko elementuak dira ozeanoak eta, horretaz gain, bitartekoak lortzeko iturri garrantzitsuak dira. Hala ere, ekosistema horien inguruan dagoen ezezagutza handia da oraindik, batez ere ozeanoetako gune sakonenetaz ari garenean.

Arlo horretan zientziak eman dituen urratsak izango dira, hain zuzen ere, [Naiara Rodriguez-Ezpeleta AZTIko](#) ikertzailearen abiapuntua Zientziaren Ertzetik zikloaren barnean eskainiko duen “**Itsasoko DNA irakurtzen: ozeanoen ekologia eta eboluzioa ulertzeko bidaia**” (Leyendo el ADN marino: un viaje para comprender la ecología y evolución de los océanos) hitzaldian.

Montrealgo Unibertsitateko Biokimika doktoreak azalduko du nola DNA ikerketek, genetika arloan emandako aurrerapenen bitartez, ahalbidetu duten itsasoko ekosistemak eta eboluzioak ulertzea. Horren ondorioz, biziaren jatorriaz gehiago dakigu edota espezieen arrantza kuotak ezartzeko protokoloak diseinatu ahal izan dira.

Hitzaldia [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Durangoko [Bizenta Mogel Bibliotekak](#) antolatzen dute eta **otsailaren 9an**, ostirala, izango da **18:30ean** liburutegian. Sarrera librea izango da edukiera bete arte. Hala ere, hitzaldia streaming bidez ikusteko aukera egongo da EITBren [Kosmos kanalean](#).



Hizlaria

Naiara Rodríguez-Ezpeleta durangarra Euskal Herriko Unibertsitatean Biologian lizentziatu zen eta Montrealgo Unibertsitatean (Quebec, Kanada) Biokimika doktoretza egin zuen. Bere ikerketa-ibilbidean zehar Rodríguez-Ezpeletak teknika genetikoak aplikatu ditu hainbat arlotan, hala nola zelula eukariotoaren eta fotosintesiaren jatorrian edo giza eboluzioan eta gaixotasun konplexuen elkartze genetikoetan.

Gaur egun, AZTIko ikertzailea da, eta ekologian eta bilakaera molekularrean dituen ezagutzak aplikatzen ditu itsas ekosistemak eta haien baliabideak ulertzeko eta, horrela, haien kudeaketa eta kontserbazioa hobetzeko.

Hitzaldi-solasaldia: Itsasoko DNA irakurtzen. Ozeanoen ekologia eta eboluzioa ulertzeko bidaia.

Hizlaria: Natalia Rodríguez-Ezpeleta, Biokimikan doktorea eta AZTIko ikertzailea.

Eguna: Otsailak 9, ostirala.

Ordua: 18:30.

Tokia: Durangoko Bizenta Mogel Liburutegia (Komentukalea kalea, 8).



Zientziaren Ertzetik

Charla-coloquio

Leyendo el ADN marino. Un viaje para comprender la ecología y evolución de los océanos

Naiara Rodríguez-Ezpeleta, investigadora de AZTI

En Durango, a 30 de enero de 2024. El océano, además de constituir una importante fuente de recursos, es un elemento clave en el funcionamiento del planeta. A pesar de ello, el conocimiento sobre este ecosistema sigue siendo bastante limitado, sobre todo en lo que respecta a las capas más profundas.

La investigadora de [AZTI Naiara Rodríguez-Ezpeleta](#) aportará algo más de luz en torno a los océanos. Lo hará en la charla "Leyendo el ADN marino: un viaje para comprender la ecología y evolución de los océanos" dentro del ciclo Zientziaren Ertzetik.

La bióloga y doctora en Bioquímica por la Universidad de Montreal abordará cómo los avances en el campo de la genética han posibilitado estudios de ADN que se han convertido en una oportunidad para comprender la ecología y la evolución de los ecosistemas marinos. Unos estudios que abarcan desde la comprensión del origen de la vida hasta el establecimiento de cuotas de captura de especies pesqueras.

La charla, organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#) y la [Biblioteca Bizenta Mogel](#) de Durango, tendrá lugar el **9 de febrero**, viernes, a las **18:30** en la misma biblioteca. La entrada es libre hasta completar aforo y, además, se podrá seguir la charla por streaming en el [canal Kosmos](#) de EITB.



Ponente

Naiara Rodríguez-Ezpeleta, natural de Durango, es licenciada en Biología por la Universidad del País Vasco y doctora en Bioquímica por la Universidad de Montreal (Quebec, Canadá). Durante su carrera investigadora, Rodríguez-Ezpeleta ha aplicado técnicas genéticas a ámbitos tan diversos como el origen de la célula eucariota y la fotosíntesis o la evolución humana y las asociaciones genéticas de enfermedades complejas. Actualmente, es investigadora en AZTI, aplicando sus conocimientos en ecología y evolución molecular para entender los ecosistemas marinos y sus recursos, y así mejorar su gestión y conservación.

Charla-coloquio: Leyendo el ADN marino. Un viaje para comprender la ecología y evolución de los océanos.

Ponente: Natalia Rodríguez-Ezpeleta, doctora en Bioquímica e investigadora de AZTI.

Día: 9 de febrero, viernes.

Hora: 18:30.

Lugar: Biblioteca Bizenta Mogel de Durango (Calle Komentukalea, 8).